

## JAKIN profanatu, edo Gorritiko gauza ikaragarriak

Gorritik datoz orain notiziak, ikaragarriak. Sekulako poli-ziaren sarete batetan, gaizkin guztien kontra, Espainiako ordenu zaintzaile bizkorrek Abruza Abruza eta Balda Balda ezezik, azkenean herriko apaiza bera preso atzeman dute Gorritin.

Jende gaiztoa da Gorriti aldeko hori nonbait. Iruñeako Gobernadoreak eman du parte, kontuz ibiltzeko mendialde horietan, non eta bospasei urteko umetxoan monopolia bera terrorista bait da, guztiz explosiboa. Ez dakigu asko zer gauden ikusteko Nafarroan oraindik.

Irratia, TB, prentsa, biziki saiatu dira egun osoan aireak eta lurrak ondo informatuta edukitzen, poliziaren ekintza prestu eta ausart hori mundu guztiak behar bezala ezagun zezan eta espantuz miretsi.

Izan ere, ez bait da nolana hikoia izan. Halako arrisku tokian halaxe egin beharra zegoela erraz konprenituko denez, poliziak segur aski «al asalto» hartu behar izan zuen Gorritiko apaize-  
txea. Zein atake zaila eta gogorra izan zen, eta nolakoa sarras-  
kia, argazkietatik pentsa daiteke. Hankaz gora etxe dena: erre-  
dizak hautsita, atek orpotik aterata, aulkiak zilipurdika, libu-  
ruak eta paperak alde guztietara sakabanatuta. *Sacco di Gorriti*.

Eta hondamendiaren zarpail lardaska nahasian, lurrean bo-  
tata, buruz behera, JAKIN aldizkari batzuk ere ikusten ziren  
*Egin*-eko argazkietan.

Poz izpi bat, hainbeste subnormalentzako gezur-informa-  
zio eta miseria artean. Behar den tokian gaude: behar den gizo-  
nek han gauzkatelako. Biba Borriti!

Gorritiko apaiza, Arrizibita eta Ansorena, makina bat aber-  
tzale gaztek egunotan gogoratua, euskaltzale zaharrek, euskal-  
dun berrik, berrizekok, umek eta larrik, ezagunagoa inoiz hari  
baino beti harek egindako mesedeengatik euskal herrietan:  
orain preso Espainian. «Gorriti, negarra darik begiti».

Hator Nafarroara. ■ *Lazkano Mendizabal*